

13. kronika : **Aurtengo Euskaraldia**

2018an egin zen lehen Euskaraldia. Zergatik ? Badakigu gero eta euskaldun gehiago garela, eskolaren bidez. Baina gero eta euskara gutiago entzuten dugu. Inkesta guziek hori agertzen dute, bereziki Arrue inkestak

Zer egin ? Euskaraz hitz egin. Ikasten den euskara ez bada erabiltzen, ahultzen da eta denborarekin desagertzen. Beraz gure mintzamoldea aldatu behar dugu eta hortarako Euskaraldia antolatzen dugu. Bigarren euskaraldi hau 2020ko azaroaren 20tik, abendoaren 4a arte iraganen da.

Zer da Euskaraldia ?

Euskaldunak hitzartzen dira 15 egunez euskaraz hitzeginen dutela beti eta ororekin. Hortarako hitzunik bi kategoriatan banatuak dira *Ahobizi (bouche vivante)* eta *Belarriprest (oreilles aux aguets)*.

Ahobizi da euskara ongi dakiena eta solaskide euskaldunekin beti euskaraz ari dena. Solaskidea ez badu ezagutzen, lehen hitza euskaz ematen dio eta ulertzen badu euskaraz jarraitzen.

Belarriprest da euskara ulertzen duena eta doi bat hitzegiten. Beraz euskalduna euskaraz ari zaiolarik erdaraz erantzuten ahal dio eta elkarrizketa elebiduna eramaten dute.

Arigunea (lieu d'action) : Kanpaina kolektiboa delakotz, erakundeek finkatuko dute non euskara erabil daitekeen. Adibidez herriko etxe batek eskoletako administrazioa euskaraz ezar dezake.

Ipar euskal herrian zer ?

Jean-René Etxegarai Baionako auzapeza da eta Euskal Elkargoaren lehendakaria. Euskaraldia onartu du Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Foru Aldundiarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin. Proiektua Elkargoaren hizkuntza politika ausartaren barnean kokatzen da, adibidez harreman publiko batzuetan.

Antton Kurutxarri, baigorriarra, hizkuntza politika honen lehendakari ordea da eta EEPko lehendakari berria. 30 bat arigune finkatuak ditu bere zerbitzuetan eta euskararen erabilera lotzen dio irakaskuntzari : « Irakatsia eta ikasia den hizkuntza eguneroko bizian erabilia, ikusia eta entzuna izan dadin nahi dugu ».

Iparraldeko 258 herrietarik 66k eman dute beren izena Euskaraldian aritzeko. Euskal Hedabideek ere, Kazeta, Kanaldude, Euskal Irratiak, Herria, Hitza erakundeek laguntza hitzeman dute agiri komun batean : « Gure gain hartzen dugu herri batzordei ahotsa ematea... Euskaraldiaren ekimen nagusiak hauspotzea. Ariguneak izanen gara, *Ahobizi* eta *Belarriprest* guziei irekirik. »

Euskal Herri osoan zer ?

Orotara 412 herrik parte hartuko dugu Euskaraldian, lehen aldian baino 16 gehiagok. (Euskal Herri osoan badira 17.000 herri baino gehixago). Baina herri bakoitzean erakunde batzuk bereziki parte hartuko dute, eskola, herriko etxe, kirol edo kultur taldeek, bakoitzak arigune bat sortuz. Denak kondatuz 25.000 arigune izanen dira, ez baita guti.

KOVIDaren pandemiak zaildu egin du Euskaraldiaren antolaketa eta Kike Amonaritz, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak dio : « Guztion laguntza behar dugu *Ahobizi* eta *Belarriprest* guzien gana heltzeko. Eta oztopoak oztopo, Euskal Herria gero eta euskaldunagoa nahi dugu ». Beraz denek eman dezagun parte hartzeko izena www.euskaraldia.eus webgunean. Euskara erabil, bere geroa segurtatzeko molde bakarra baita.

Hitz gakoak

Euskaraldiren oinarrian hizkuntza ohiturak aldatzeari buruzko teoriak daude. Ohiturak aldatzeko bidean jorratu nahi ditugun mezu nagusiak hauek dira.

1. *Posible da.* Zaila delako ustea desaktibatu behar da. Horren ordezkari mezu dinamikoa zabaltzeko behar dugu *Ahobizi* eta *Belarriprest* dinamika kolektiboa bultzatzuz.
2. *Ulertzen dutenek.* Euskaldunek euskaraz hitzegitea jokamolde arrunta bilakatu behar da, ikasten ari direnak ere abiarazteko.
3. *Ele biko elkarrizketa.* Euskaldunek euskaraz has eta ulertzen dutenek euskaraz edo erdaraz erantzun.
4. *Ulermena.* Euskal Herri osoan euskararen ulermen unibertetsala lehentasuntzat ezarri behar litzateke.
5. *Lehenbiziko hitza.* Euskaldunentzat, ohizkoa izan behar litzateke lehen hitza euskaraz ematea, jakiteko mintzakidea euskalduna ala erdalduna den.
6. *Oinarria erabilera eta erabilera.* Ez da ihesbiderik. Erabilerak erabilera akulatzen du. Hau da proiektu osoaren motorra.
7. *Helduak.* Helduak dira haur eta gazteen adibideak. Egiten duguna eska dezakegu beste. Beraz euskaraz hitz egin eta izena eman www.euskaraldia.eus webgunean.